K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:29 Página 1

EUSKAL PRESO ETA IHESLARI POLITIKOAK ETXERA

KALAPUTXI

LURDES ARISTONDO

Energia Berriztagarrien ildotik jarraitu nahi nuke lanean

25 URTEZ ZARATAK MUSIKA BIHURTUZ

ZURE DISKO BIRTUALA HODEIAN

2012KO UDAL AURREKONTUAK

HONDARTZA, UDARAKO BAIÑO EZ?

- Etxea apaintzeko proiektuak
- Altzariak
- Sukaldeak
- Leiho mistoak (egurra eta aluminioa)

Ondo pasatu Malen jaixak!

AROZTEGIA

BARRUETABEÑA Hnos, S.A.

Errenteria auzoa, z/g · ONDARROA

Tel.: 94 683 18 07 · e-posta: barrueta@barruetabena.com

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:29 Página 3

aurkibidia

Informaziua	4
Zeuk esan	5
Puri-purixan	6
Bi hitzetan	8
Lapazorrikeixak	11
Karenka	12
Kalez kale	14
Gizartia	16
Tek. berriak	17
Kulturia	18
Zorion agurrak	20
Argazki zaharrak	21
Agenda	22

*Kalaputxi*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Argitaratzailea
Karenka komunikazio elkartea
Barrenkale,12 behea - 20830 Mutriku.

Telefonoa
635 748 393
e-maila
kalaputxi@topagunea.com
kalaputxi2001@gmail.com
Bloga
kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea
Mutrikuko Udala
Kolaboratzaileak
Iñigo Andonegi, Josu Ituarte, Malen Aldalur
Tirada
2.200 ale
Lege Gordailua
SS-787/01
ISSN
1579-4792
Inprimategia
EUSKALINPRI. Deba
Banaketa
Kalaputxi

iritzixa

ETXEA

Zero, bat eta bi: "Momentu honetan ezin zaitugu hartu, mesedez itxaron telefonoan edo bestela beranduago deitu". Zero, bat eta bi: "Momentu honetan…". Halako batean, norbaitek hartu zidan telefonoa. 2011ko maiatzaren bukaera zen. "Egunon. Mutrikutik deitzen ari naiz. Babes sozialeko etxe bat tokatu berri zait alokairuan eta ea orain zer egin behar dudan galdetzeko deitu dut". Isiltasun baten ondoren: "Oraingoz zain egotea beste aukerarik ez duzue. Lasai egon, egun gutxi barru jasoko duzu abisua".

Handik pare bat astera, zero, bat eta bi. "Egunon. Duela aste batzuk alokairu sozialean…". Isiltasunaren ostean: "Egun batetik bestera hasiko zaizkizue eskutitzak iristen…". 2011ko abuztua aurretiko azken deia zero, bat eta bi zenbakira. "Duela bi hilabete etxe bat tokatu zitzaidala esan zenidaten, baina…". Eta ohiko isiltasunaren ostean, ohiko erantzuna.

Urte betean 75 etxebizitza hutsik eduki ditugu herrian, eta inor ez da gai izan egoerari soluzio (egoki) bat topatzeko. Egunkari batean irakurri ahal izan dudanez, azken lau urteotan 2.200 desjabetzetik gora egin dira Euskadin (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan). Beste era batera esanda, urtean 550 familia bidali dituzte euren etxetik. Alegia, egunean ia bi familia kale gorrian geratu dira. Eta guk bitartean 75 etxe hutsik.

Udako oporrak pasa eta udazken erdian zero, bat, bi zenbakira hots egin nuen berriro: "Ba al dakizue ezer Mutrikun zozketatu ziren…". "Nik uste laster jakinaraziko dizutela zerbait, baina…". Gogoratzen dut bere gainetik dagoen norbaitekin hitz egitea gustatuko litzaidakeela esan niola, eta bederatzi digituko zenbaki bat eman zidan. "Mutrikutik deitzen dut, maiatzaren bukaeran zozketatu…". Eta orain arteko erantzunik egokiena eman zidaten: "Eusko Jaurlaritza eta promotore pribatu bat (Visesa) etxeen gaineko akordiora iritsi ezinda dabiltza, eta, hori konpondu artean, ez duzue inolako erantzunik jasoko". Bost hilabete behar izan nituen zerbait argitu ziezadaten. Eta ezin ezer egin. Hilean behinedo deitzen jarraitu nuen zero, bat, bi zenbakira, esperantzarik ez galtzeko edo.

Azkenean, etxearen planoak iritsi zaizkit, eta idatzi honekin nenbilela esan zidatenez, uztailaren bukaera, abuztu edo irailaren hasierarako sartuko gara etxeotan. Urtebeteren ostean! Zozketa egunean bi umerekin zegoen emakumeaz oroitu naiz, bere izena pantaila erraldoian ikusi zuenean negarrez hasi zen emakume hartaz. Ez zitzaizkion azkar pasako ez, azken 14 hilabeteak.

Unai Belaustegi B.

Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailordetza
EUSKO JAURLARITZA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Mutrikuko Udaleko
Kultura eta Euskara Batzordea

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:29 Página 4

telefonoak

Medikuak, anbulantziak, botikak

Larialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Zaintzako botikak:
Otxagabia (Mutriku) 689 58 57 59
Apraiz (Mutriku) 630 05 50 97
Zalduegi (Deba) 669 26 22 02
Burgoa (Deba) 667 33 88 90
Etxeberria (Elgoibar) 943 74 01 40
Garitaonaindia (Elgoibar) 943 74 11 77
Yudego (Elgoibar) 943 74 12 93
Barrenetxea-Etxeberria (Elgoibar) 943 74 12 77

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa 943 60 70 48
..... 679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Turismo bulegoa 943 60 33 78
Bake Epaitegia 943 60 70 49
Alde Zaharra eraberritzeko zerbitzua 943 60 34 18
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz Frontoia 688 64 31 80
Ur partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Anai Arte 943 60 34 10

Irakaskuntza

Goizeko Izarra ikastola 943 60 36 75
San Miguel ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko Institutua 943 60 35 45
Udal euskaltegia 943 60 30 94
Musika eskola 943 60 37 80
Haur eskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

Ansola Taxia 638 672 383
Anton Taxia 666 221 999
Xabi Taxia 656 289 026
Pesa autobusak 902 10 12 10
Eusko Trenbideak 902 54 32 10
Loiuko aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Iberdrola 901 20 20 20
Kofradia 943 60 32 00
Posta zerbitzua 943 60 30 44
Gasolindegia 943 60 32 10

ordutegiak

Autobusak

MUTRIKUTIK → DONOSTIARA

Astegunak 7:00 / 10:00 / 13:30 / 19:30
Zapatuak 10:00 / 16:30
Jai egunak 10:00 / 19:30

DONOSTIATIK → MUTRIKURA

Astegunak 8:00 / 11:30 / 14:30 / 20:30
Zapatuak 11:30 / 19:30
Jai egunak 11:30 / 20:30

MUTRIKUTIK → BILBORA

ASTEGUNETAN GOIKO ERROTONDATIK

06:25 / 07:25 / 15:25

BILBOTIK → MUTRIKURA

14:10 / 18:10 / 20:10

MUTRIKUTIK → DEBA - MALLABIA

Astegunetan: 7:15etik 21:15era orduro.
Jai egunetan: 8:15etik 21:15era orduro.

MUTRIKUTIK → ONDARROARA

Astegunetan: 6:55etik 20:55era, orduro.
Jai egunetan: 7:55etik 20:55era orduro.

Trenak

Orduro ateratzen dira adierazitako ordu tartean.

DEBA → DONOSTIA → DEBA

Debatik **6:44** – 7:44 - ...- **21:44**
Donostiatik **5:47** – 6:47 - ...- **20:47**
Jai egunetan 8:44etan lehenengoa.

DEBA → BILBO → DEBA

Debatik **6:43** – 7:43 - ...- **20:43**
Bilbotik **6:00** – 7:00 - ...- **20:00**
Jai egunetan 8:43etan lehenengoa.

DEBA → EIBAR → DEBA

Debatik **6:43** - 7:43 - … - **21:43**
Jai egunetan, 8:43etan hasiko da

Eibartik **6:13** - 7:13 - ... - **21:13**
Jai egunetan, 8:13etan hasiko da

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:29 Página 5

BESTE BEHIN,
MURRIZKETAK EUSKAL HEDABIDEENTZAT

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaigu ere. Estrategikoa, bai, oinarrizko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro inguruko jarduera ekonomikoa eragiten dugulako.

Inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitzeko: diru iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatzeko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

Inbertitzeko garaia

Herri ekimeneko euskarazko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eskaera zehatzak ere jarri ditugu erakundeen mahai gainean: diru laguntza politika aldatu eta hitzarmen eredua ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publizitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideak pisu handiagoa izan dezatela.

Horren berri eman diegu erakundeei eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horieran sakontzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla gutziontzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea berregituratazeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da.

Elkarlanerako deia

Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berriz ere Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakundeei. Danon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok beharrean jarraituko dugu, egoera berrietara egokitu eta kalitatezko euskarazko informazioa eskaintzeko. Erakundeei dei egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, behin hau eginda beharrezko baliabideekin horni dezagun.

Herri Ekimeneko Euskal Hedabideak

MUSIKA ESKOLAREN PROIEKTUAN SINISTEN DUTE?

Bilduren legealdiko lehen aurrekontuak azkenean joan zen hilaren azken aldera onartu ziren. Eta beren lehentasunak gauzatu ahal daitezen, hainbat arlok murrizketak ezagutu dituzte. Horietan, bere hogeita bost urteko ibilbide arrakastatsuan zehar Mutrikuko haur zein gazte andanari musika heziketa eta zaletasuna txertatzen aritzen den Musika Eskola dugu. Ondo iruditzen zaigu bakoitzak bere lehentasunak izatea baina edozeren truke izan behar al du?. Nonahi ari dira sindikatu nahiz irakasleak borrokan gobernuek (espainiarrak nahiz erkidegokoak) ezartzen ari diren murrizketen aurka. Nola liteke, ordea, hezkuntzan etxez kanpo denean, murrizketen aurka hain irmo atera diren ezker abertzalekoek, etxean denean erabat aurkako jokabidea erakustea?. Hamar mila eurotan murriztu diete eta, Bildukoek, hori gauzatzeko inolako egitasmo edo proiekturik aurkeztu ordez, bertako irakasleengan utzi dute "opariaren" zama. Are tamalgarriagoa, ordea, ikusirik azken bi legealditan, Goiko Plazako aparkalekuaren gaueko zerbitzua bermatzeko, zinegotzi batek haren ardura doan bere gain hartu zuen bitartean, oraingo legealdian, musika eskolari ezarritako murrizketa kopuru bera jarri dutela zerbitzua egingo dutenei ordaintzeko. Non da, beraz, hainbat aldiz aldarrikatutako auzolana?.

Iruditzen zaigu kaleak alaitasunez betetzen dituzten ehunka haur eta gazte musikaz prestatzen eta hezten saiatzen direnek errespetu handiagoa merezi dutela. Badakigu egoera larritasunez bizitzen ari direla. Mutrikuk betidanik izan duen musikarako eta kanturako zaletasuna gogoz zaindu beharra dugu. Guk, egiaz sinesten dugu horretan, eta zuek?.

Alderdi Jeltzaleko Mutrikuko udal taldea

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:29 Página 6

2012ko UDAL AURREKONTUAK

Udal ordezkariek zergatiak eta nondik norakoak hobeto azaltzeko, deialdi zabal baten bidez azaldu zizkieten herritarrei 2012ko aurrekontuak Zabiel jauregian ekainaren 20an. Azalpena egin ondoren, hurrengo egunean, udalbatzaren osoko bilkura berezian onartua izan zen 5.076.261 euroko aurrekontua Bilduko zazpi zinegotziren bozekin. EAJko lau ordezkariek aurka bozkatu zuten, eta Berdeak+Independenteen ordezkaria abstenitu egin zen. Aurrekontu hauek aurrera ateratzeko Aldundiko Ogasun departamentuko teknikariekin esku emanda joan direla azpimarratu zuten, Mutrikuko Udalak arazo salbagaitzak dituelako zorpetzerako orduan.

Lau zatitan azaldu zituen Joseba Palenzuela alkateak 2012ko aurrekontuen nondik norakoak: egoera ekonomikoa, udalak dituen diru sarrerak, ezarri dituzten lehentasunak eta gastuen argiketa. Hauek izan ziren herritarrei zuzendutakoak:

Egoera ekonomikoa

Zorrak:

- Banku eta Kutxekin ditugun maileguenak ..... 5.283.250 €
- "Mutriku Lantzen" (eliza atzeko aparkalekua) ..... 1.202.000 €
- Iazko balantze negatiboa ..... -206.000 €

Arrazoi nagusiak:

- 2011. urtean jasotakotik Aldundiari bueltatu beharrekoak ..... 357.000 €
- 2009. urtean jasotakotik Aldundiari bueltatu beharrekoak ..... 229.024 €

2012 urteko ekitaldian ordaindu beharrekoak:

Aurreko maileguei aurten eskatutako 450.000 €koa gehitzen zaie (oraindik Gipuzkoako Batzar Orokorrak onartu behar dituztenak):

- Interesak ..... 158.874 €
- Amortizazioak ..... 612.422 €
- Aldundiari 2009. urtean jasotakotik bueltatu beharrekoa ..... 229.024 €
- "Mutriku Lantzen"en interesak + amortizazioa ..... 96.000 €
- 2013an Aldundiari bueltatu beharrekoak 2009an jasotakotik ..... 229.024 €

Diru sarrerak

Mutrikuk bere diru sarreren zati handiena Gipuzkoako Lurralde Historikotik datorkio; hau da, Aldundiaren Foru Ogasunetik. Aurreko urteetan aurreikusi ziren sarrerak baino nabarmen gutxiago jaso izan dira, eta, horrek, tamalez, eragin handia izan du gure udalean. Aurtengo aurreikuspenei begiratuta apur bat beheragotik jo dugu, eta 2.685.359 €tan jarri dugu jasotzeko asmotan garen zifra; hau da, gure aurrekontuaren %53.

Udalaren esku dauden diru sarrera handienak hauek dira:

- Kapitalaren gainekoak (ondasun higiezinak, ibilgailuak…) ..... 978.400 € (%19a)
- Tasak (zabor bilketa, zerbitzuak…) ..... 649.600 € (%13a)

Eskatu den 450.000 €ko mailegu berriak suposatuko du ia %9; beraz, beste sarrera guztiak %6 besterik ez dute suposatzen.

Ondo pasa Malenak!!
Joseba Iñaki Eleizgarai
masajista eta osteopatia
Tel: 630 788 059 - Konte kalea 22, Mutriku

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Gora Malenak!
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:29 Página 7

Udalaren lehentasunak

Egunerokotasunean mantenuko eta zerbitzuko lanak kontuan izanik, eta daukaten garrantzia emanda, bi arlo nabarmendu nahi ditugu gure eginahalean:

Gizarte eta Ongizate arloa. Arlo honetan justizia soziala eta berdintasuna izango ditugu ipar.

Garapen arloa. Etorkizunerako oinarriak jartzea izango da gure ahalegina. Debegesa izango dugu bidelagun, sortzen zaizkigun zenbait arazo alboratzeko.

Hirigintza da landu nahi dugun beste arloa. Nahiz eta ez diren urte asko azken Arau Subsidiarioak onartu zirela, uste dugu zaharkituak gelditu direla, eta ez diotela erantzuten gaurko Mutrikuk eskatzen duenari. Ahaleginak egingo ditugu lehen harriak jartzen.

Bestalde, kudeaketa hobea lortu nahi dugu gure udalaren barnean zein kanpoko zenbait estamenturekin ditugun harremanetan etekin handiagoak lortzeko. Hori dela-eta, zinegotzi bat dugu soldatapean jarrita egun erdiko lanean, eta, laster baten, beste bat jarriko dugu.

Gastuak

Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastatuko ditugu gure aurrekontuetako 2.094.247 € (%41). Zati honen atal inportanteena zabor bilketa eta kale-garbiketari zuzenduko zaizkio 804.956 € (aurrekontu osoaren %16). Beste atal garrantzizkoak dira: bulego orokorrak, obrak, gizarte eta ongizatea, kirola… (multzoaren %14 - %9 - %8 - %6…)

Hurrengo multzo inportanteena *pertsonalaren lansariak* dira, 1.440.000 €. (%28). Zati honen atalik handiena Kulturak eramaten du 333.900 € (multzoaren %23). Bulego orokorrak eta lanbrigadak daramate %17 pasatxo bakoitzak, eta udaltzaingoak %15.

Maileguen interesak eta amortizazioak suposatzen dute hirugarren poltsa handiena 1.000.321 €, (aurrekontu osoaren %20).

Gizarte eta ongizatea, garapena, kultura, hirigintza, kirola… subentzio eta diru laguntzak osatzen dute 405.760 €, (aurrekontu osoaren %8), eta oso gutxi geratzen zaigu inbertsioetarako (%1,8) eta %0,9 turismo dinamizaziorako.

EAJ-PNV

Aurrekontu hauen aurka bozkatu zuen EAJk. Zinegotzien liberazioa ez dutela ondo ikusten eta arauak berrikustearena ere ez. Beste murrizketa eta partida kentze batzuk proposatu zituzten.

BERDEAK + I

Garapenerako partidak, arauen berrikusketa eta Debegaserakin egindako hitzarmenaren aurka agertu ziren, baina abstenitu egin ziren bozketan.

Argazkixa: Jon Andonegi

OPERA GAUAK AHO ZABALIK UTZI DITU HERRITARRAK

Inoizko kiritikarik onenak jaso ditu herriko musika bandak ekainaren 30ean eskainitako ikuskizunak. Jendez gainezka zegoen parrokia Opera gaua ikusteko. Bandakoen lana izugarria izan zen, eta herritarrek jakin zuten horretaz jabetzen, eta jasotakoa eskertzen. Musikariak ez ezik, herriko koroetako abeslariak ere bikain aritu ziren. Eta bakarlarien lanak aipamen berezia irabazi zuen. Herritarren eta Leire Gomez ondarrutarraren ahotsek eta interpretazioek sentimenduak azalera ekartzea lortu zuten. Herritarrek antolatutako ikuskizunen kalitatea dudan jartzeko modukoa ez dela argi laga zuten, beste behin ere, herriko eragileek.

AZALEKO MELANINA PROBAK EGIN DITUZTE HERRITAR ASKOK

Kantzerraren Aurkako Elkartearekin elkarlanean udalak azaleko melanina probak doan egiteko aukera eman die herritarrei. Aurreikuspen guztiak gainditu zituen Ongizate Batzordetik bultzatutako ekimenak; itxaron-zerrendan geratu zenik ere izan zen. Herritarrak pozik hartu zuten ekimena, eta “horrelako gehiago” egiteko animoak ere helarazi dizkiete udal ordezkariei. Proba egiteaz gain, azalari eta haren zainketari buruz informazioa zabala helarazi zitzaien herritarrei. “Taldeek egiten duten lanaren berri ere eman nahi genion herritarrei, eta aurrerantzean ere herriko beste elkarteen lana bistaratzeko eta egiten duten lana zabaltzeko haiekin elkarlanean jarraituko dugu.

KOMIKIXA

Josu Ituarte "Pitxame"ren eskutik

UR-HODIA APURTU IZANA APROBETXATUTA, INGURUKO INSTALAZIOA BERRITU DUTE

Beheko Plaza parean, Barren kalerako sarreran, ureranhodia apurtu egin zen. Herriko zenbait tokitako uren bideguratzea da leku hori, hain zuzen ere. Gauzak horrela, Ur Zerbitzuak enpresak zuloa konpontzeaz gain, bertan dauden hiru giltzak ere berritu ditu, eta bide batez, Barren kalera doan hodia ere aldatu egin du. Guztira 13 metro hodi berritu dituzte. Ur kanalizazioa 1960koa da, eta beharren arabera berritzen dute. Aipatutako obra amaitzean, metro beteko harlauza jarri da galtzada-harriaren ordez: alde batetik, irisgarritasuna hobetzeko eta beste alde batetik, mantenu eta berritze lan errazago eta egokiago egiteko.

MOTZ-MOTZIAN LEHIAKETAREN SARIAK BANATUTA

Motz-Motzian film laburren lehiaketaren bigarren edizioa heldu da amaierara. Eta irabazleak ondokoak izan dira: nagusien, mailan, Roberto Gimmerans *Bukaera* lanarekin eta umeen mailan, Amets Lekube *Zirkua badator. Zirkua badijua* lanarekin. Epaimahaikideek aurkeztutako guztien ahalegina eskertu zuten, eta lanen kalitateak gora egin duela adierazi. “Erabakia zail jarri digute. Guztiek zuten zerbait berezia”, azpimarratu dute.

HERRIKO BASERRIETAKO PRODUKTUAK, BAI NOSKI!

Uztailak 14ko Azoka Txikian, Gorka Urresti Jarri Toki jatetxeko sukaldaria aritu zen garaiko produktuekin sukaldatzen. Pare bat errezeta gauzatu zituen jendeaurrean, eta ondoren, bertan erosketak egin zituztenek aukera izan zuten sukaldatutakoa dastatzeko. Aurtengo Azoka Txikiek aukera ederra ematen dute bertako eta sasoiko produktuek erosi eta ematen dituzten aukeren berri izateko, “Animatu herritarrok herriko baserrietako produktuak kontsumitzera!!!", aldarrikatu dute Debemenetik.

Gainera, uztailaren 18an *www.baserrikoa.com* web orrialdea aurkeztuko dute, eta bide horretatik, baserritarrekin edozein momentuan kontaktuan jartzeko aukera edukiko dute herritarrek. “Azoken zain egon beharrik ez dago egongo aurrerantzean. Webgunearekin bertako produktuak erosteko aukera zabalduko da" , gaineratu dute.

MALEN JAIXETAKO KARTEL LEHIAKETA

Malen jaixetako Kartel lehiaketan guztira 5 partehartzaile egon dira, eta 6 kartel aurkeztu dira, partaide batek bi kartel bidali ditu.

Epaile lanetan jai batzordeko hainbat kide eta Iñigo Andonegi aritu ziren.

Kartelen aukeraketa egiterakoan kartel egileen berri ez zitzaien eman epaileei, kartelak anonimoak izan ziren bukaera arte. Epaileek kartel irabazlea, Leire Rodrigezek aurkeztutakoa izendatu zuten (aldizkari honen kontrazalean doana), bigarrena Jon Naberanek aurkeztutakoa eta hirugarrena Eider Lekubek aurkeztutakoa.

Zorionak parte hartzaile guztiei eta bereziki irabazleei.

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:29 Página 10

ADATS ILEAPAINDEGIAK	943 60 39 45
ALAZNE OPTIKA	943 60 31 54
ALBARO DENDA	943 60 33 48
ALBOKA OKINDEGIA	943 60 46 73
20 m² ARROPA-DENDA	943 60 44 60
AMALUR EKODENDA	943 60 47 42
AMETZA TABERNA	943 60 37 49
ANSORREGI OINETAKOAK	943 60 33 42
ARANZUBI TABERNA	943 60 30 53
APAIN ESTETIKA ETA TERAPIA	943 60 42 29
APARRA - KRESALA	943 60 45 94
IÑIGO-BELEN	**943 60 37 01**
IPARRAGIRRE ALTZARIAK	**943 60 39 79**
IRIPE ELEKTRA SALMENTA	**943 60 3347**
JOSEBA ELEZGARAI MASAJEAK	**630 78 80 59**
LEAR ARROPADENDA	**943 60 37 46**
LON APRAIZ BOTIKA	**943 60 32 50**
LORETXU TABERNA	**687 913 600**
MADARIAGA PAPERDENDA	**943 60 44 23**
MANEIRO LENTZERIA	**943 60 31 76**
MGS ASEGURUAK	**943 60 70 22**
MILA FRUITATEGIA	**664 244 489**

Malen Jai zoriontsuak herritar guztioi!

ARNO OKINDEGIA	943 60 71 59
ASTIGARRAGA ANAIAK	943 60 40 86
BARE - BARE TABERNA	943 60 42 03
BATZOKI TABERNA	943 19 50 76
BERISTAIN LIBURUDENDA	943 60 34 94
BODEGOIA TABERNA	943 60 46 23
BUCEO EUSKADI	943 19 50 88
CAMPING GALDONA	**943 60 35 09**
ERDIKO MERZERIA	**665 715 039**
GOITI-BEHERA TABERNA	**943 1950 62**
GOTZON ARRANDEGIA	**943 60 46 02**
IÑARRAIRAEGI EDARITEGIA	943 60 39 38
MIRUAITZ FRONTOIA TABERNA	943 107 396
OLAIZOLA UME JANTZIAK	943 19 50 74
PANADERI-BERRI	943 60 33 03
PIPER ARRANTZA DENDA	943 60 48 54
PINPIRIN ESTETIKA	943 02 91 34
POTERO OKINDEGIA	943 60 45 12
SABINA ELIKAGAIAK	**943 60 35 43**
SAGARMIÑA ERAIKETAK S.L	943 19 22 49
SUBELTZ TABERNA	943 60 30 58
ZELAIETA JATETXEA (Olatz)	943 60 45 95
ZUBIARAM TABERNA	943 19 51 07
ZUBIXA TABERNA	943 60 32 16

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:29 Página 11

Hondartza, udarako baiño ez?

Saturraranen hondarra ateratzen (1952)

Uda betian goz. Askorentzako sasoi aproposa hondartzara hurreratzeko: eguzkixa hartu, itsasuan baiñatu... dan-dana hondar gozuaren gaiñian.

Plaiak eta hondarra atsedenaldixarekin lotzen ditxugu gaur egun, baiña hori ez da beti hola izan. Garai baten, atsedenaldirako tartia ere txikixagua zan, eta gaiñera hondartzek ez zakaen hainbesteko erakarmenik.

Edade batetik gorakuek ondo gogoratuko deue zela ibiltzen ziran Saturrarango plaiatik hondarra ateratzen Mijoko baserritxar batzuk (Arana, Doiztu-bekua, Saturraran-zar...): idixak buztartu eta burdi bolantiarekin ibiltzen ziran, batez ere negu aldian, izan ere udan ez zan egoten denbora libre askorik baserrixetan.

Bi burdi erabiltzen zitxuen lan horretarako; palak hartuta, burdi bat kargatzen zeuen bitxartian, bestia gaur egun aparkalekua dauan lekuan hustutzen zoan hondarra. Gerotxuo, pilla haundixa zauanian, kamioia etorri etortzen zan hondar haura hartzera. Batez ere obretarako saltzen zeuen, etxiak egitxeko-eta. Harrobixetan marmola ebakitzeko ere erabiltzen zan, eta baten batek ganauen azpixak egitxeko ere bai.

Fiñena *hondarra* zan, eta lakarraguari *grijua* (harritxintxarrak) esaten zakon, haura ere ateratzen zan.

Itxura danez, Hondarbeltz plaian ere lan hortantxe ibiltzen ziran ingurukuak. Artian ez zauan hondar askorik bertan, eta asko ateratzerik ez zauanian Saturraranera juaten ziran hondar billa. Hondartzari erabillera publikua eman zixuela-eta, 1950 urtian debekatu egin zeuen Hondarbeltzetik hondarra ateratzia.

1739 urtian, badakigu portuko mollak (Intxirrixa) konpontzeko Debatik ekarritxako hondarra erabiltzen zala, udalak kontu-liburuan jaso zoan bezela: "Onze reales y diez maravedies por traer una gavarrada de arena de Deva que se les dieron a dichos peones en quatro azunbres de vino".

Etxietan, brillorik gabeko lur-zoruak garbitzeko ere hondarra erabiltzen zan leheno. Bernabenian, konparaziotako, sukaldia eta eskailletak garbitzen ziran hola. Ez zan makala gure lehengo etxeko andriek egitxen zeuen lana: belauniko, trapo zaharrak jarritxa belaun azpixan, espartza, hondarra eta lejia erabiltzen zitxuen lur-zorua garbitzeko; gero, trapo batekin dandana batzen zeuen. Hondar harek zikiñak ateratzen zitxuan bezela, lejiak zuri-zuri lagatzen zoan egurra. *Arenatu* esaten zakon lan hari.

Sukalde ekonomikuetan, txapa-gaiña ere arenatzen zan, hondarra eta ozpiña erabillitxa, ah! eta *sutako kertena* goguan daukazue? Haura ere arenatu biharra egoten zan.

Hondar haura Mutrikuko hondartzetakua baiño fiñagua zan, gure herriko dendetan saltzen zan kilo erdi eta kilo bateko paketietan.

Arratzalien artian ere hondarrak bere garrantzia dauka, izan ere arrain batzuk haitz artian ibiltzen diran bezela beste batzuk hondo hondartsuetan bizi dira. Adibidez, *hondarreko barbariña* zurixkia da, argixa, eta ia ez dauka arraiarik. *Harriko barbariñak* ostera, kolore bizixagua dauka. Eta *basatako salberia* daguan bezela *hondarrazpiko salberia* ere bado: tripa zapala daukan arraiñ zuri honek baiñua lasai-lasai hartzen dozenentzako mingarrixak izan leikezen 4-5 espiña daukaz abaniko modura.

Mazixa egitxeko ere erabilli izan da hondarra; gatz emandako antxoba txikitxuari nahastauta. *Zorrua* esaten zakon mailla txikidun sarian jartzen zan mazixa, eta hondarraren pixuarekin errez juaten zan dana hondora. Gero esku-aparijuarekin sarbo, pelenka eta partzimiki ederrak harrapatu zeikezen, amuan gatz emandako antxobia jarritxa.

Uste det, hondar kontu honek irakurritxa, aurtengo udan, beste era batera begiratuko dixaula hondarrari.

Josu Larrañaga Arrieta

aparra
Erdiko kalea, 29
Tel.: 943 60 45 94
Jantziak eta pitxiak
Barrenkalea, 2
Tel.: 943 60 47 43
KRESALA
BEHERAPENAK Gora Malen jaixak!

Gora Malen jaixak!
Gizonezkoen ileapaindegia
IMOTZ
Erdikokale, 34 - behea MUTRIKU Tel.: 943 60 41 62

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:29 Página 12

“Energia Berriztagarrien ildotik jarraitu nahi nuke lanean”

Gipuzkoako Perituen eta Industria Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofizialak “Felix Sopelana VIII. Memoriala” saria eman dio Lurdes Aristondo (1990-04-01) mutrikuarrari. Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitateko ikaslea dugu eta karrera amaierako proiekturik onenaren lehenengo saria jaso du hain zuzen ere. Galesetik etorri berria harrapatu dugun arren, gustura azaldu dizkigu bere proiektuari buruzko gorabehera guztiak.

Galesetik etorri berria zara…

Bai, etorri berria naiz. Aurtengo ikasturtea Galesen egin dut, bertan hasi bainintzen Energia Berriztagarrietan oinarritzen den karrera egiten. Aurreko ikasketak Elektronika arlotik eginak izatean, erraztasunak ere izan ditut azken ikasketa hauek egiteko, arlo asko baliozkotu baitizkidate. Hala eta guztiz ere, denak ez dira erraztasunak izan, ikasketetan eta eguneroko bizitzan ingelesez jardun behar izan baititut, normala den bezala. Ikasturte osoa atzerrian pasatu ondoren, bukatu ditut ikasketak eta hemen naiz berriro.

Elektronikako ikasketak aipatu dituzu…

Bai. Batxilergoa bukatu ondoren, Eibarreko unibertsitatera zuzendu nintzen ikasketak egitera; elektronika adarretik. Hiru urte egin eta gero, praktikak egiteko edota proiektu bat aurkezteko aukera luzatu zidaten, beste edozein ikasleri bezala, eta nik azken horixe aukeratu nuen. Mutrikuko undimotriz zentralean oinarritzea erabaki nuen, Energia Berriztagarrietan zentratu nahi bainuen, batez ere.

Zure Proiektua saritua izan dela jakin dugu.

Horrela da. Galesen aurkitzen nintzen sariak eman zituztenean, eta nire ordez familiako bat hurreratu behar izan zen saria jasotzera. Gipuzkoako Perituen eta Industria Ingeniari Teknikoen Elkargoak luzatzen duen “Felix Sopelana VIII. Memoriala” saria jaso dut.

Zein da proiektuaren mamia?

Proiektu hori Mutrikun daukagun undimotriz zentralean (olatuen energia aprobetxatzen duena) oinarritu nuen, eta beste itsas teknologia berrien ezartzearen aldeko proposamen osagarrian datza.

Egina daukagun dike horretan, energia lortzeko bi sistema batera erabiliko nituzke: maremotriza (itsasgora eta itsasbeheren artean sortutako mugimendu eta masak aprobetxatuz) eta undimotriza (haizeak itsas azalean sortzen duen mugimenduaren ondorioz sortutako olatuak aprobetxatuz). Horrela, mareen potentzia eta dentsitatea aprobetxatuko nituzke.

Orain momentuan daukagun sistemak 600 lagunentzako energia sortzen du, hau da, urtean 600.000kwh produkzioa izango dela aurreikusita dago; sistema egokiak erabiliz, ordea, askoz ere gehiago lortzeko aukera izango genuke.

Hori nire iritzia baino ez da, noski.

PAGOAGA S.A.
iturgintza - berogintza - gasa...
Gora Malenak!
Tel.: 943 74 02 79 - 943 74 05 12
Faxa: 943 74 35 65 / e-mail: pagoagasa@euskalnet.net
San Antolin, 13 - 20870 ELGOIBAR

BARE - BARE
TABERNA
gosariak, pintxoak, bokatak...
etorri gurekin Malenak
giro onean pasatzera!

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:29 Página 13

Proposamen osagarria dela diozu. Nola uztartzen da dagoen zentralarekin?

Aurrez aipatu nahiko nuke hausnarketa-lan sakona izan dela, egina edo gauzatua dagoen proiektua aztertu eta hori hobetzea izan baita nire helburua. Aipatu dudan bezala, egina dagoen dikea aprobetxatuko nuke eta energia sortzeko bi sistema jarriko nituzke: maremotriza eta undimotriza. Orain momentuan, 16 turbina daude jarrita, eta turbina bakoitzak 18kwko potentzia dauka. Turbina horiek olatuen mugimenduaren ondorioz sortutako haizearen presio edo potentziaren menpe daude. Nik, aldiz, mareen mugimenduaren menpe dagoen turbina jarri dut, itsasoaren indarra aprobetxatuz. Azken batean, uraren dentsitatea haizearena baino handiagoa da, eta horren ondorioz sortuko litzakeen energia kantitatea handiagoa izango litzateke.

Beraz, itsasoaren dentsitatea aprobetxatuko lukeen turbina bakarra erabiliko genuke; bi norabideetan lan egiten duen turbina erabiltzea litzateke egokiena. Turbina bakarra erostean, gastua gutxitu egingo genuke; sortzen dugun energia, aldiz, handiagoa litzateke orain momentuan 16 turbinek sortzen dutenarekin alderatuz. Horrez gain, urtegi moduko eraikuntza bat egin beharko genuke, ura bertan mantentzeko. Urtegira olatuak sartu eta ura berriro kanpora irtengo litzateke.

Zeintzuk dira gaur egun sistemarik erabilienak?

Itsasoaren potentzial guztia ustiatzea aurrerapauso galanta izango litzateke, oraindio, ordea, gure herrialdean ez daukagu batere jorratua hidraulika arloa edota itsasoaren ustiaketa.

Itsasoa, bere ezaugarriengatik, energia edukiontzi erraldoia da, oparoa eta agortezina. Hori aprobetxatu beharra daukagu.

Nik ezagutzen ditudan sistemarik erabilienak hauxek izango lirateke: alde batetik, Melanis deritzon bihurgailua (olatuen gainean gora eta behera dabilen sistema), kaptadore puntualeko sistemak, olatuen gainezkatze sistemak eta, azkenik, OWC sistema (Mutrikun momentuan daukagun turbina anitzeko sistema).

Proiektua aurrera eramateko zeintzuk izan ziren eman beharreko pausuak?

Ordu asko eskaini nizkion proiektuari eta jarraitzen dut eskaintzen, nire asmoa hobetzen joatea baita. Lehen pausua informazioa biltzea izan zen, horretarako Mutrikuko udalera zuzendu nintzen eta bertan jaso nituen beharrezko datu guztiak. Datu horietatik abiatuta jarri nuen martxan nire lana, egina zegoen proiektua nola hobetu nezakeen pentsatuz. Alegia, produzitzen den energia kantitatea nola gehitu eta eginak zeuden gastuak nola murriztu.

Badakit honelako proiektu erraldoi batek jendearengan sortzen duen ezinegona edo ezadostasuna nabarmena izango litzatekeela; alde teknikoari begiratzen badiogu, ordea, itsasoaren kapazitatea erabiliz energia gehiago ateratzea ahalbideratuko luke horrelako proiektu batek. Energia garbiak nahi ditugu, baina gure ingurua suntsitu edo eraldatu gabe: dena ezinezkoa da.

Proiektuak arriskurik, bai?

Energia berriztagarri guztiek dauzkaten arriskuak ditugu: hileko edo urteko lortzen den energia inoiz ez da berdina izango, mareen mugimenduetara, indarrera, dentsitatera… baldintzatuak baikaude, eguzki plakak eguzkiaren argitasunera mugatuak dauden bezalaxe.

Zeintzuk dira zure hurrengo asmoak?

Galesera bueltatzeko asmoa daukat, Energia Berriztagarriei buruzko masterra bertan egiteko asmoa baitaukat. Argi daukat gauza bat: energia berriztagarrien ildotik jarraitu nahiko nuke lanean, Hidraulika arloan, zehatzagoa izateko.

Eta, agian, Eskoziara joateko aukera ere izango dut. Eskozian hidraulika arloa oso landua daukate, eta sistema ezberdin ugari ikusteko eta horietaz ikasteko aukera izango nuke.

TXAKUR KAKA?
EZ, ESKERRIK ASKO !!

Aspaldiko kontua honako hau. Bazoaz kalean zehar eta plast! zapaldu duzu mokordoa, eta inguruan txakur jaberik ez. Berdeguneak eta hondartzak ere ez daude hobeto. Zer egin?
Zeintzuk ote dira txakur jabeen betebeharrak? Udaletxeko web orrira jo eta han aurkitu ditugu arauak. Luzea da arautegia, 63 atal ditu, baina guk batzuk baino ez ditugu ekarri hona.

ANIMALIAK EDUKI ETA BABESTEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA
Txakurren jabe edo edukitzaileak behartuta daude horiek identifikatu eta zentsatzera jaio edo eskuratu diren hiletik hasita. Horretaz gain, animaliaren osasun-kartila izan beharko dute.
Animaliok ezarpen elektroniko bidez identifikatuko dira.

Udalak txakurren Zentsoa izango du.
Haginka eginez lesioak sortu dituzten txakurrek gai horren erantzukizuna duen Osasun Sailari egoki iruditzen zaizkion kontrolak jasango dituzte.
Bide publikoetan eta pertsonak ibiltzen diren beste leku batzuetan, txakurrak lepoko uhaletik helduta eramango dira eta zirkunstantzialki beren jabeen alboan. Mozalaren erabilera udal Agintaritzak ezarriko du zirkunstantziek hala eskatzen dutenean eta inoiz haginka egin badute edo arriskugarriak direla jakiten bada.

Animaliak ezin izango dira honako leku hauetan sartu: ikuskizun publiko, kirol, kultura edo jolaserako lokaletan, zein egerileku publikoetan…
Ostalaritza-establezimendu publikoetan, hala nola, hotel, pentsio, jatetxe, taberna, kafetegi eta antzekoe-

ARRIZABALAGA
Okela eta janari prestatuak
Gora Malenak!
Pol. Ind. Mijoa, P 2 - 2
Tel./Fax: 943 603 065
E-mail: arrizabsenideak@terra.es
20830 MUTRIKU
(Gipuzkoa)

ERDIKO
Merzeria
Kinkilak, azpiko arropak, hariak, artilea...
Malen jai zoriontsuak opa dizkizue
Erdiko kale 12 - Tel. 665 715 039



tan, jabeek beren iritzien arabera debeka dezakete animaliak sartzea eta egotea. Edonola ere, animaliak identifikatuta eta uhalez lotuta egon behar dute.

Debekatuta daude txakurren gorotzak edo kakak bide eta plaza publikoetan, haur-parkeetan eta, orohar, apaindura-tokietan zein pertsonak dabiltzan lekuetan. Hala eta guztiz ere, gorotzak espaloietan edo oinezkoak dabiltzan tokietan eginez gero, jabeak edo animalia daraman pertsonak du horiek kentzeko erantzukizuna. Txakurren batek bide publikoa zikinduz gero, animaliaren jabe edo edukitzaileari egindako kaltea berehala konpon dezala eskatzeko ahalmena dute hiritarrek.

Ordenantza honen eraginetarako, arau-hausteak arinak, larriak eta oso larriak dira. Hemen arinak eta larriak baino ez ditugu kontuan izan.

Arau hauste arinak:
Txakurrak zentsu-identifikaziorik gabe edukitzea.
Txakurren gorotzak edo kakak edozein lekutan uztea: bide eta plaza publiko, haur-parke, lorategi eta apaingarritzat eta/edo pertsonak ibiltzeko erabiltzen diren lekuetan.

Arau-hauste larriak:
Txertoak edo derrigorrezko tratamenduak ez ematea.

Aipatutako arau-hausteei ezarriko zaizkien zigorrak 30etik 15.000 eurotara bitarteko isunak edo multak izango dira, mailaketa honen arabera.
Arau-hauste arinak: 30etik 300 eurotara.
Arau-hauste larriak: 300dik 1.500 eurotara.
Arau-hauste oso larriak: 1.500dik 15.000 eurotara.
Zigorren zenbatekoak urtero eta automatikoki eguneratuko dira Kontsumo Prezioen Indizearen arabera.

Arauak eta legeak badaude, baina zertarako?
Udaletxera ere jo dugu eta bertan zera esan digute: gaia garrantzitsua dela eta arretaz egingo diotela jarraipena, iraila aldera-edo jarriko dutela martxan arazo honi aurre egiteko plana. Bitartean, herritarrok jarraitu egin beharko dugu orain arte bezala. Eta zer diote herritarrek?

"*Nik uste dut Mutrikun txakur gehiegi dagoela. Ez dakit non entzun nuen, Mutriku eta Ondarroa konparatuz, hemen txakur kopuru bikoitza zegoela Ondarroan baino. Gero, kontua da txakurrak ez duela inolako errurik, jabeek dutela errua, batez ere kaken kontua da izugarria. Legeak dio jabeak jaso behar duela, eta ez badu jasotzen? Zuk esan ahal diozu jabeari, eta baita erantzuna jaso ere!*"

"*Leku publikoetan egotearena, baldin eta jabearekin eta ondo hezita badago, ez zait gaizki iruditzen; beti ere, jabea adi egonda*".

"*Nik txakurra daukat eta ez zait burutik pasatzen lotu gabe eramatea, jendea dabilen lekuetan behintzat. Kaka jasotzeko plastikoak ere beti eramaten ditut nirekin; beraz, niretzat naturala da neuk jasotzea. Ez zait burutik pasatu ere egiten txakurrarekin hondartzara joatea jendea dagoenean. Alde batetik, jendeagatik eta nire txakurragatik ere bai, eguzki galdatan edukitzea sufrimendua delako berarentzat. Badaude orduak eta lekuak txakurra aske ibiltzeko*".

"*Udaro sufritzen dugu kontu honekin. Hirugarren plaiara joaten zara eta, zikinez eta harriz beteta egoteaz gain, txakurrak ere jasan egin behar dituzu. Herritarrak ere ez dira hobeak. Zerbait esan, eta erantzun txarra jasotzen duzu. Udaletxearen jarrera ere epela dela uste dugu. Iaz debekuaren kartela jarri zuten, eta hurrengo egunean sasi artean azaldu zen. Eta? Uda osoan ez zuten beste kartelik jarri. Beraz, nola esango diozu txakur jabeari txakurrik ezin dela egon, debekatzen duen seinalerik ez badago? Edukazio falta handia sumatzen dugu honetan ere*".

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

JARRI-TOKI
Jatetxea
- Eguneko menua eta karta
- Familia giroko bazkariak
- Enpresa bazkariak
- Ezkontza, bataio, Jaunartze...
Tel. 943 60 32 39 MUTRIKU

ZABALDU MEZUA

Gaixo eta larri diren hamalau euskal preso politikoen egoerak bihotza hausten digu. Minbizia izan eta tratamendua hartzeko zailtasunak, bere buruaz beste egiteko saiakerak, bihotzekoa... Kalean ere larriak diren eritasunak dira, zaintza berezia eskatzen dutenak. Beraz, egoera horretan espetxean preso eta kasu askotan sakabanatua izateak pertsonaren bizitza arriskuan jartzen dutela ulertzen dugu guk. Egoera honek presoengan eta hauen senideengan sortzen duen sufrimendua esplikaezina da giza eskubideen ikuspegitik. Mina besterik ez dakarren egoera da, inori onurarik egiten ez diona. Egoera larri horren aurrean, argi dugu ez garela besoak gurutzaturik gelditukо. Gaixotasun larriak dituzten pertsona hauen askatzea premiazkoa da, presazkoa, egoera hau mantentzeak ondorio larriak ekarri ditzakeelako.

Arduradunen borondatea ez da baina guk espero eta nahiko genukeen modukoa. Itxikeria da nagusi Moncloako bulegoetan, Espainiako Entzutegi Nazionalean eta Espetxe Zaintzarako Erakundean. Beraz, itxikeria hori gainditu eta espetxe politika aldatzera bultzatu behar ditugu arduradunak.

Gaixotasun larriak dituzten presoak aske uztea, bizi osorako espetxe zigorrarekin amaitzea etaeuskal preso eta iheslari guztien etxeratzea gauzatu beharko litzateke. Milesker.

amnistiaren bidean euskal presoak etxera

Ntra. Sra. de Begoña EHORZKETA

Iriagirre z/g

Tel.: 646 351 352 - 943 60 47 78
943 20 10 95 (**24 ordu**)

SUSTRAIAK

LORE NATURALA ETA ARTIFIZIALA
LORE MOZTUAK - OPARIAK
DEKORAZIOA - ATARIAK - BULEGOAK
EZKONTZAK - HILETAKO KONPOSIZIOAK

Erdikokale - Mutriku

ZURE DISKO BIRTUALA HODEIAN

Gaur egun, ordenagailuarekin gauza asko egiten ditugu, eta sortzen ditugun dokumentuak gero eta ugariagoak dira: argazki kamara digitalarekin ateratzen ditugun argazkiak, eskolako lanak, etxeko ekonomia kudeatzeko dokumentuak, fakturak, eta abar.

Informatika tresna egokia eta erosoa da, baina arriskua ere hortxe dago: zer gertatuko litzateke diskoan dugun informazio guzti hori galduko balitz? Hain garrantzitsuak diren datu horien kopiarik egiten al dugu? Eta non dauzkagu kopia horiek? Eguneratuta daude?

Azken urteotan, hainbat aukera sortu dira Internet sarean gure datuen kopiak izateko, asko eta asko doakoak eta oso kalitate onekoak gainera, seguru zuetako askori ezaguna egingo zaizuela hauetako zerbitzuren bat: Dropbox, Box.com, Ubuntu One edo Google Drive. Ez dira bakarrak, baina agian bai ezagunenak.

Tresna horiek erabilita, guretzat garrantzitsuak diren dokumentu horien kopia bat gorde dezakegu Interneten, eta gure ekipoari zerbait gertatuko balitzaio, beste ekipo batetik Internetera konektatu eta gure dokumentuak berreskuratzeko aukera izango genuke.

Antzeko ezaugarriak dituzten arren, nire ustez, Dropbox da gaur egun aukera gehien ematen dituena. Zerbitzuan alta ematearekin batera 2GBeko karpeta ematen digu doan, eta 18GB lortu ditzakegu berak ematen dizkigun pistak jarraituz gero. Kontutan izan 2GBeko karpeta horretan adibidez 2MBeko 1000 dokumentu gorde ditzakegula (argazkiak, word dokumentuak, e.a.), beraz, ez dago gaizki.

Dropbox-ek, gainera, hainbat ezaugarri interesgarri ditu:

• GNU/Linux, MAC OS, Windows eta telefono mugikorretan instalatzeko aukera ematen du. Etxean, eskolan edo lanean sistema eragile horiekin lan egiten baduzu, ordenagailu guzti horietan partekatu ahal izango duzu zure karpeta. Horretaz aparte, web nabigatzailearen bidez ere edonondik sar zaitezke zure kontura.
• Dokumentuen bertsioak mantentzen ditu. Eskolako lan bat egiten ari bazara, eta egin duzun azken aldaketa atzera bota nahi baduzu, posible izango duzu bertsio zahar bat berreskuratzea.
• Dokumentu edo karpetaren bat partekatzeko aukera ematen dizu. Demagun lagunekin egun pasa mendira joan zarela eta kamararekin ateratako argazki pilo bat duzula lagunekin partekatzeko. Aurrerantzean, ez duzu argazki horiek posta elektronikoz bidali beharrik izango. Zure dropbox txokoan gorde argazkiak dituen karpeta hori, eta klik batekin berak emango dizu interneteko helbide bat zuk zure lagunei postaz bidaltzeko. Helbide horretan sartu eta zuk partekatutako argazkiak ikusteko aukera izango dute zure lagunek, eta baita deskargatzekoa ere.
• Taldean lan bat prestatu behar duzula? Ba, dropbox txokoan duzun karpeta bat zure lankideekin partekatu eta lankideei karpetan idazteko baimena ematen badiezu, bakoitzak bere ordenagailuan ikusiko duen karpeta guztion artean partekatua izango duzue.
• Eta beste hainbat ezaugarri ere baditu, baina kalaputxin denak azaltzeko lekurik ez !!

Esan bezala 18GBera igo dezakegu gure karpetaren kapazitatea. Esteka hau jarraituz, zerbitzuan izena ematen duen bakoitzagatik, niri beste 250MB emango dizkidate, beraz animatzen bazara, klikatu hemen eta bide batez mesedea egingo didazu ;-) http://db.tt/w3maZcQ.

Pedro Arreitunandia

Solé Diesel
nanni diesel
YANMAR
MOTORES MARINOS DIESEL
Ondo pasa Malenak!
DOISTU
ITSASOKO MOTORREN ALDAGAIAK eta KONPONKETAK
Nasa Kalea, 5 - 20830 MUTRIKU - Gipuzkoa
Tfnoa.: 943 603872 / Mugikorra: 659 670233 / Faxa: 943 603078

ETXERRE
LORE-TOKI
Lore eta landareetan
eskaintza zabala
opari, ezkontza, hiletetarako...
Ondo pasa Malenak!
Mutriku-Ondarroa errepidea - Tel.:943 60 39 97

25 urtez zaratak musika bihurtuz

Elizan, jaietan, plazetan, tabernetan... kanturako edozein tokik balio du. Musika edonoiz eta edonon sortu daiteke. Mutrikuk lotura berezia dauka musikarekin, herri kantaria izan da aspaldidanik eta musika zaletasuna odolean daramate herritarrek. Horretan zer esan handia eduki du Mutrikuko Udal Musika Eskolak, izan ere, musika zaletuak musikari profesional bihurtzen dihardu urte luzez.

NOIZKO EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA ATHLETI TXAPELDUN BARRURA TXIXA EITXEN IKASI ?
SBB subandilla buztan beltza
MALENAK ONDO PASA!!!

BAR TXOKO MUTRIKU
943604002
Bokatak
Hanburgesak
Sandwichak
Pintxo morunoak
...eta nahi duzuna
Ondo pasa Malen jaixak!

Aurten 25 urte egin ditu Mutrikuko Udal Musika Eskolak. Herriko txiki eta ez hain txikiei musikarekin gozatzen erakutsi diete mende laurdenez. Notak, doinuak eta kantuak non-nahi entzun daitezke Musika Eskolako lau pareten artean. Musikaren artea herriaren eskura jarri eta musika ulertzeko tresnak eskaintzen dituzte.

Mutrikuko Udal Musika Eskolaren historia 1983ko urriaren 20an hasi zen. Izan ere, garai horretakoa da Musika Eskolaren inguruan hitz egiten duen lehenengo udaletxeko akta. Garaiko kultur batzordeak herri kantari baten beharrak asetzeko Musika Eskola bat sortzeko proiektua aurkeztu zuen bertan. Proiektua "aho-batez" adostua izan zela diote Musika Eskolako kideek. Hala ere, Musika Eskola ez zen sortu 4 urte beranduago arte.
Hasiera batean, udaletxe atzeko lokala erabiltzea hautatu zuten, eta bertan hasi ziren partiturako lehenengo notak idazten. Hasiera batean, ziega edo kartzela legez erabili izan zuten lokal hura, gerora, eskola profesionala izan zen eta, azkenik, musikaren etxe bihurtu zuten. Besteak beste, solfeoa, pianoa, txistua eta akordeoia irakasten ziren lehenengo urte haietan.

Ofizial bihurtze bidean

1992. urtean Musika Eskolen dekretua egin zuten, eta bertan aipatutako baldintza horietara egokitu zen Mutrikuko Udal Musika Eskola. Horrela, 2000-2001 ikasturtean Eusko Jaurlaritzan erregistratu eta ofizialtasuna lortu zuen.
Garai horietan hazkunde nabarmena izan zuen, eta hein handi batean arrakasta hori garaiko udal politikariei sor dietela uste dute bertako langileek. Hori dela eta, garaiko alkate zen Jose Agustin Elezgarai eta kultur batzordean lan egiten zuten Aitziber Andonegi eta Itziar Egurbide eskertu nahi dituzte.

Etorkizuna

Mutrikuko Musika Eskolaren iragana proiektuz beteta zegoen, baina etorkizuna ez da gutxiagorako. Eskaintza desberdinak besapean hartuta datoz Musika Eskolako kideak. Hurrengo ikasturterako hainbat ikasgai berri martxan jarriko dituzte: Informatika musikala, euskal kantak eta musika tradizionala eta kultura musikala hain zuzen ere.
Bestalde, Musika Eskolako ikasle gehienak ume eta gazteak dira, baina horrek ez du esan nahi helduek lekurik ez dutenik. Hori dela eta, aurretik aipatutako ikasgaietako batzuk helduentzat diseinatuak izan dira, euskal kantuak eta musika tradizionala esaterako.

Lanean jarraitzeko gogoz ageri dira Musika Eskolako irakasleak, eta herriarentzat lanean jarraitzeko asmoa dute beste hainbeste urtez. Roberto Bergara Mutrikuko Musika Eskolako zuzendariaren hitzetan, musika eskolaren helburua dituzten errekur-tsoekin ahalik eta zerbitzurik aberasgarriena eskaintzea da.
Irakasleen begietatik begiratuta, Mutrikuko Udal Musika Eskola herriarentzat eginiko proiektu bat da, herrian guztiz integratua dagoena eta herriaren interesei erantzunez 25 urtez hazten joan dena.

Azkenik, Mutrikuko Udal Musika Eskolako kideen partez, eskerrik beroenak orain dela 25 urte bere sorrera posible egin zuten udal politikariei eta, bereziki, kultura batzordeari, gurasoei eta, jakina, ikasleei.

25 doinu, 25 ilusio, 25 amets, 25 urte. Ilusioz eta grinaz eginiko lanaren fruituak dasta daitezke. Herri kantaria oraindik ez da ahots gabe gelditu, herria oraindik musika gosez da. Hori dela eta, jarrai ezazue urte luzez zaratak musika bihurtuz.

Malen Aldalur Azpillaga

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:30 Página 20

ZORIONAGURRAK ZORIONAGURRAK ZORION AGURRAK

ELAIA
Zorionak gure Elaia alaiari. Irriz beteriko urtea izan dezazula. Muxuak etxeko guztion partez.

LANDER
Zorionak abuztuaren 8an 16 urte beteko dituzulako. Ondo pasatu eta muxu bat ama, aita eta amonan partez.

MADDI
Zorionak etxeko larrosari abuztuaren 6an 6 urte haundi egiten dituelako. Muxu haundi bat etxeko danon partez, bereziki Jokinek.

AITOR eta NAHIA
Zorionak bikote-mikote! Matxo handi bat Mutrikuko famili guztiaren partetik eta ondo pasatu zuen urtebetetzean. Aupa Atlhetik!

ENEKO
Zorionak gure artista txikiari! Segi horrela, orain artean bezala!

ANER
Aupa Txapeldun! Zorionak zure seigarren urtebetetzean. Txokolatea jan eta belarritik tiratzeko prest gaude zure auzoko lagunak.

MADDI
Zorionak Maddi. Aitxona, amona eta izeben partez.

ANDER
Zorionak uztailaren 17an 6 urte bete dituzulako. Mutrikuko familixak eta bereziki Beñatek.



AIERT
Zorionak gure etxeko txapeldunari! Ondo ondo pasa zure 6.en urtebetetzea. Beñat eta etxeko danon partez.

MAITE eta NARKIS
Ekainean eta uztailean urteak bete dituzuelako Zorionak bioi. Muxuak etxekoen partez.

LAUKOTE
Zorionak Laukote! Parrandarako listo? Gogoz ospatu zuen urtebetetzea eta matxo handi bat familiako denon partez.

GOTZON ARRANDEGIA
Ondo pasa Malen jaixak!
Gotzon Eizagirre
Felix Txurruka, 2 - Tfnoa:943 60 46 02 / 943 60 36 59

ZELAIETA JATETXEA
Umeentzako pottokak
kapeak bazkariarekin 36 €
Tel.: 943 60 45 95 Olatz Auzoa - Mutriku

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:30 Página 21

1964-65ean dantzariak
Juanito Galparsoro, Eloisa Galparsoro, Gema Elezgarai, (?), Izaskun Motrico, Mari Carmen Ibarzabal, Leonardo Belaustegi?, Francisco Lekunberri, Jose Antonio Urresti, Cosme Furundarena?.

1968-69an dantzariak
Ezkerreko ilaran: Juanito Galparsoro, Casildo Oianguren, (?), Juanjo Azkue.
Eskuineko ilaran: Jose Mari Ulazia, (?) , (?), Jose Mari Elezgarai.

Errepresioaren aurkako taldearen oharra

GORA ELKARTASUNA!

Mila esker multak ordaintzeko diru-laguntza eskaini diguzuen guztioi.

JAKIN 1.617 € BATU DIRELA

Krisiak guztiok gogor astintzen gaituen honetan, izugarria da laguntza hori. Eta are izugarriagoa eman diguzuen elkartasun lezioa.
Ez dugu berehalakoan ahaztuko. Mila esker.

EUSKAL PRESO ETA IHESLARI POLITIKOAK ETXERA

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:30 Página 22

ZAINTZAKO BOTIKAK

UZTAILA: Gaueko 10ak arte.

16tik **19**ra Otxagabia
20tik **22**ra Apraiz
23tik **26**ra Burgoa
27tik **29**ra Zalduegi
(zapatu goizian Otxagabia)
30 eta **31** Apraiz

ABUZTUA: Gaueko 10ak arte.

1 eta **2** Apraiz
3tik **5**era Otxagabia
6tik **9**ra Zalduegi
10etik **12**ra Burgoa
(zapatu goizean Apraiz)
13tik **16**ra Otxagabia
17tik **19**ra Apraiz
20tik **23**ra Burgoa
24tik 26ra Zalduegi
27tik **30**era Apraiz
31 Otxagabia

IRAILA: Gaueko 10ak arte.

1 eta **2** Otxagabia
3tik **6**ra Zalduegi
7tik **9**ra Burgoa
(zapatu goizean Apraiz)
10etik **13**ra Otxagabia
14tik **16**ra Apraiz
17tik **20**ra Burgoa
21etik **23**ra Zalduegi
(zapatu goizean Otxagabia)
24tik **27**ra Apraiz
28tik **30**era Otxagabia

Gaueko 10etatik aurrera
ELGOIBARREN
ikus 4. orrialdea

ANTOLATZEN DITUZUEN EKITALDIEN BERRI EMATEKO, TARTEA DAUKAZUE HEMEN!

uztaila

Uztailak 21etik 25era
MALEN JAIXAK (ikus programa)

abuztua - iraila

Abuztuak 11
09:00etan Azoka txikia, Beheko plazan

23:00etan Kontzertua **Leok´k** taldearen eskutik, Goiko plazan

Abuztuak 18
09:00etan Azoka txikia, Beheko plazan

Irailak 1
23:00etan Kontzertua **Melissa and the Jacks** taldearen eskutik, Goiko plazan

Irailaren 13tik 16ra
GALBAIXO JAIXAK

MENDI IRTEERAK

BURUMENDI M. E.

IRAILAK 9
BAIGORRI-
OILHARANDOY-
MUNHOA-
DONIBANE GARAZI

IRAILAK2 3
MUTRIKUKO
INGURUAK EZAGUTUZ

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:31 Página 23

K119:kalaputxi aldizkaria.qxd 12/07/12 11:31 Página 24